

Olentzero maitea:

Beste urte batez ere banago zuri gutun hau idazten, horregatik ez dizut azalduko urtero kontatzen dizudana, guztiok jada badakigu urte honetan zehar arazo ugari izan ditugula. Arazo guzti hauek konpontzea gustatuko litzaidake, azken finean guztiok pairatzen baititugu: aldaketa klimatikoa, genero indarkeria, ideologia ezberdinak izateagatik sortutako gatazkak etab. Beraz galdetuko zara, zer nahi izango du aurten honek?

Aurten aurkeztuko dizudan istorioa, nire birraitonaren lanarekin zerikusia du. Floren izeneko Santurtziko arrantzalea izan zen, arrantza-ontzi batean lan egiten zuena, santurtziar askok bezala. Denboraldi luzeak ematen zituen barku hartan. Nire amonak azaldukoaren arabera, behin, kostaldetik hurbil hegaluze anitz zirela, tripulazioa itsaso barnera abiatu egin zen. Zoritxarrez, ekaitzen, itsaslasterren eta olatuen ondorioz hamahiru egun pasa behar izan zituzten ur handian.

Honen berri egiten dizut azaltzeko nire familia betidanik itsasotik bizi izan dela eta honi esker biziraun egin dugula. Gure iraganagatik baita bizi garen herriaren istorioagatik itsasoarekiko maitasun handia daukagu eta guztiok itsasoarekin lotuta gaude modu batean ala bestean. Tamalez, honek aldaketa handiak jaso ditu eta gero eta latzagoa dago, bereziki, gizakion erruagatik.

Benetan, Olentzero, gaur egungo itsasoaren egoerak kezkatzen nau. Edozein hondartzara joan eta ezinezkoa da paseo bat ematea zaramarik aurkitu gabe. Pena itzela ematen dit hau horrela

izatea eta ez da bakarrik gure hondartzetan gertatzen den kontua, mundu osotik zabalduta dagoen arazoa da. Hainbat lantegik sortutako hondakinak itsasoan bukatzen dira, baita gure eguneroko bizitzan sortzen ditugun asko ere. Pertsona batzuk ez dira dagoen arazoaz ohartzen, baina, hondakin hauek eta petrolioaren itsasoan egoteak, atmosferaren CO₂-aren kantitatearen hazkuntzak eta hainbaten inplikazio eskasak, itsas animalien suntsipenean eta haien bizitokiaren aldaketan eragina dute. Harrigarria da itsasoan hainbat plastiko tona egotea, milioika urtetan eraturako koralezko arrezifeak suntsituak egotea, hainbat espezieen desagertzea, poloetako izotza gero eta eskasagoa izatea eta halako beste hamaika adibide aipatu ditzaket. Penagarriena gure errua dela jakitea da.

Burura etorri zaidan konponbide edo laguntza bakarra, haurren etxeetara joaterakoan eta opariak nahiz ikatza uzterakoan, gutun-azal bat ustea da. Gutun horretan, eskutitz bat idatziko ahal izango genuke bion artean, guztiok bizi dugun arazo larri honetaz informazio gehiago izateko, haien laguntza eskatzeko eta honetaz kontzientzia har dezaten. Amaitzeko, eta eskutitz hau mundu osora zabaltzeko, Lur osoan zehar dauden beste haur kezkatuen laguntza eskatu ahal dugu. Horrela, nahiz eta zu Euskal Herriko haurren etxeetara joan, gutuna pertsona gehiagotara ailegatu ahal izango da.

Nire gutuna irakurriko duzun itxaropenarekin eta eskatutakoa kontuan izango duzulakoan, agurtzen zaitut. Eskerrik asko eta gabon onak opa dizkizut.